

1.GALDETEGIA

Kofaktore entzimatikoa(k):

Aukeratu bat:

- a. Apoentzimarekin batera holoentzima osatzen du.
- b. Beharrezkoa da dagokion holoentzimak bere funtzioa bete dezan.
- c. Apoentzimari kobalenteke lotuta baldin badago, talde prostetiko da.
- d. Ioi ez-organikoa edo koentzima izan daiteke.
- e. Aurreko guztia zuzena da. ✓

Erantzun zuzena hau da: Aurreko guztia zuzena da.

Zein da entzima batek erreakzio batengan duen eragina?

Aukeratu bat:

- a. Aktibazio-energia jaitzaraztea. ✓
- b. Produktua aldaraztea (erreakzio desberdin bat eragitea).
- c. Erreakzioaren oreka aldaraztea.
- d. Oreka iristeko behar den denbora luzaraztea.
- e. Trantsizio-egoera desagerraraztea.

Erantzun zuzena hau da: Aktibazio-energia jaitzaraztea.

Proteina baten lehen mailako egiturari dagokionez:

Aukeratu bat:

- a. Aminoazidoen arteko elkarrekintza ahul guztiak biltzen ditu.
- b. Proteina baten jatorrizko konformazioa eta bere funtzioa erabakiarazten ditu. ✓
- c. Konplexutasun handieneko egitura-maila da.
- d. Ez dago geneetan ezarria.
- e. Proteina oligomerikoen kasuan, ez dago definitua.

Erantzun zuzena hau da: Proteina baten jatorrizko konformazioa eta bere funtzioa erabakiarazten ditu.

20 aminoazido estandarrei dagokienez:

Aukeratu bat:

- a. Prolina iminoazido bat da. ✘
- b. L-aminoazidoak dira, glizina izan ezik.
- c. α -aminoazidoak dira.
- d. Proteinen osagaiak dira, izaki bizidun guztietan.
- e. Aurreko guztia zuzena da.

Erantzun zuzena hau da: Aurreko guztia zuzena da.

Ondokoetatik, zein da proteinen desnaturalizazioaren definizio egokiena?

Aukeratu bat:

- a. Egitura primarioaren galera.
- b. Egitura sekundarioaren galera.
- c. Egitura tridimentsionalaren galera. ✔
- d. Egitura kuarternarioaren galera.
- e. Aminoazido hidrofobikoen hidratazioa.

Erantzun zuzena hau da: Egitura tridimentsionalaren galera.

Zein motatako lotura da lotura peptidikoa?

Aukeratu bat:

- a. C-O.
- b. N-H.
- c. C-N. ✔
- d. C-H.
- e. C-C.

Erantzun zuzena hau da: C-N.

Zuntz-proteinei dagokienez:

Aukeratu bat:

- a. Ez daukate hirugarren mailako egiturarik. ✓
- b. Kolagenoan aminoazido guztiak α -helize eran antolatuta daude.
- c. Ilearn osagai den keratinan aminoazido guztiak β -konformazio eran antolatuta daude.
- d. Katalisi-funtzio garrantzitsuak dituzte.
- e. Aurreko guztia zuzena da.

Erantzun zuzena hau da: Ez daukate hirugarren mailako egiturarik.

Zein elkarrekintza motak egonkortzen du proteina baten hirugarren mailako egitura?

Aukeratu bat:

- a. Hidrogeno-zubiek.
- b. Van der Waals indarrek.
- c. Elkarrekintza ionikoek.
- d. Erakarpn indar hidrofobikoek.
- e. Aurreko guztiek. ✓

Erantzun zuzena hau da: Aurreko guztiek.

Bai α -helizeari zein β -konformazioari dagokienez:

Aukeratu bat:

- a. Hidrogeno-zubiek egonkortzen dituzte. ✓
- b. Disulfuro-zubiak ere oso garrantzitsuak dira haien egonkortasunerako.
- c. Hirugarren mailako egitura mota garrantzitsuenak dira.
- d. R talde apolarrek dituzten aminoazidoak gainontzekoak baino maizago agertzen dira.
- e. Aurreko guztia zuzena da.

Erantzun zuzena hau da: Hidrogeno-zubiek egonkortzen dituzte.

Ondoko zein aminoazidok izango du karga garbi positiboa pH fisiologikoan?

Aukeratu bat:

- a. Glutaminak.
- b. Glutamatoak.
- c. Argininak. ✓
- d. Tirosinak.
- e. a) eta b) zuzenak dira.

Erantzun zuzena hau da: Argininak.